



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
IKERKETA SAILA
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Delegación Territorial de Bizkaia

“HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA: Bizkaiko Lurraldean deseskolatzea eta absentismoa eraztea” deritzan egitasmoan AURREIKUSITAKO SEGIMENDUKO BATZORDEAREN TXOSTENA

IKASTURTEA: 2004-2005

HEZKUNTZA SAILA (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza)

FORU ALDUNDIA (Gizarte Ekintza Saila)

EUDEL

AURKIBIDEA

	Orrialdea
1. SARRERA	3
2. PROGRAMAREN HELBURUAK	4
3. DATUAK JASOTZEA	4
3.1 Honako hitzon definizio operatiboa: absentismoa, deseskolatzea, absentismo pilatua eta absentismo zuzendua	4
3.2 Datuak jasotzeko ezarritako prozedura	5
4. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEKO PROBLEMAREN DIMENTSIOA BIZKAIKO LURRALDEAN	6
4.1 Oinarrizko Hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta DBH)	6
4.2 Haur Hezkuntza	10
4.3 Absentismoa eta deseskolatzea banatzea Ikuskaritzako zonaldeka	11
4.4 Eragina izan duten ikastetxeak	11
5. PARTE HARTZAILEEN IRITZIA	12
6. ONDORIOAK	19
7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK	22
8. ERANSKINAK	25
8.1 I. eranskina. : Iritziei buruzko inkestak	26
8.2 II. eranskina: Datuak Udal eta Haurtzaroko Zerbitzuetan (Aldundia) jasotzea	30

1. SARRERA

“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: Bizkaiko Lurraldean deseskolatzea eta absentismoa erauztea” deritzan egitasmoan aurreikusitako segimenduko Batzordeak joan den ikasturtean lehen txostena landu zuen Programa horretan sartuta dauden hiru Erakundeekin batera: Hezkuntza Saila (Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza), Bizkaiko Foru Aldundia (Gizarte Ekintza Saila) eta EUDEL (Euskal Udalen Elkarte). Txosten horren bidez aukera egon zen Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) ikasleen absentismo eta deseskolatzearen dimentsioa jakiteko Bizkaiko Lurraldean, eta baita Haur Hezkuntzako (3-6 urte) aldiari dagokiona ere). Gainera, kontu horretan sartuta dauden pertsonen iritzia ere jaso zen, eta horri esker hobetzeko beharrezko proposamenak ezarri ziren.

Jarraian aurkezten den txostenak (2004-05 ikasturtea), Programa ezarri zeneko bigarren urteari dagokiola, absentismo eta deseskolatzearen eboluzioaren berri eman nahi digu, aurreko ikasturtean jasotako datuek konparaketak ezarri ahal izateko erreferente gisa balio dutenez gero. Azpimarratu egin beharra dago txosten horretan “absentismo pilatu” eta “absentismo zuzendu” kontzeptuak sartu direla, eta baita arazo horren dimentsioa zonaldeka banatzea ere; eskualdeok hainbat udalerrri daramatzate berekin. Gure iritziz, aurreko guztiak balioko du arazoa hobeto fokalizatua edukitzeko, eta, horren ondorioz, gaitzetzeko esku-hartzean eraginkorragoak izateko; izan ere, Ikastetxera sarri eta normalean ez joateak ikasleen garapen pertsonal, sozial eta akademikoa neurri handi batean oztopatzen duelakoan gaude, eta horrek geroago marjinazio eta baztertze sozialeko egoerak sortuko dituelakoan.

Programa hori sustatu duten hiru Erakundeei dagozkielarik sartuta dauden pertsonen iritzia ere jasotzen dira txosten horretan. Iritzi horiek oso argi eta sendoak dira, era koordinatu batean lanean jarraitzeko beharra agertze aldera, hezkuntzarako eskubidea bermatzeko xedez, eta horren ondorioz, erabilitzerik ezak eragin litzakeen desberdintasun egoerak saihestu daitezten. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Ahaldunak eta EUDELEko Gizarto Gaietako arduradunak kontu horri berari erantzun nahi zioten, eta 2003ko apirilean *“Hezkuntzarako eskubidea bermatzeko Programa: Bizkaiko Lurraldean deseskolatzea eta absentismoa erauztea”* deritzan egitasmoa aurkeztu zuten hiru Erakundeen babespean.

Helburuak lortuz doazela egiaztatzeko eta sartuta dagoen Erakunde bakoitzari hobetzeko pautak eskaini ahal izateko xedez, Programak berak aurreikusten du segimenduko Batzorde bat egon beharra. 2004-2005 ikasturteari dagokion txosten horrek batzorde horren esku jarritako eginkizunak betearaztea du helburu.

2. PROGRAMAREN HELBURUAK

Hona hemen programa horren bidez lortu nahi diren helburuak:

- Derrigorrezko eskolatzeko adingabeen hezkuntzarako eskubidea bermatzea, deseskolatzea eta eskolako absentismoa saihestuz.
- Gizarteko maila baztertuetatik datozen familien portaera bizkortzea, hiru eta sei urte bitarteko adingabeak eskolatzeko aldera.
- Familia horien eskariei lehentasuna ematea hiru urtetik beherako seme-alabak Haur Eskoletan sartzea helburu dutenean.
- Sartuta dauden profesionaleri, oro har gizarteari eta bereziki zuzen sartuta daudenei kontu horren larritasuna aditzera ematea.
- Sartuta dauden erakundeek koordinatuki lan egitea (Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Udalak, Foru Aldundia eta Fiskaltza), deseskolatzea eta eskolako absentismoa prebenitzeko eta horren guztiaren aurka jokatzeko xedez.
- Deseskolatze eta eskolako absentismoaren egoera eta martxan jartzen diren esku-hartzeak ebaluatzea.

Txosten horren atalek erantzuna eman nahi diete adierazitako helburuei, baina arazoaren dimentsioa zehazteari ekiten zaio bereziki, zeren ezagutuago eta hobeki egongo baika-ra esku-hartzeak eraginkorrago izateko eta azken finean konpontzeko.

3. DATUEN JASOTZEA

3.1. Honako hitzonen definizio operatiboa: absentismoa, deseskolatzea, absentismo pilatua eta absentismo zuzendua

Txosten horretan ekartzen diren datuak interpretatzeko asmoz, deseskolatze, eskolako absentismo, absentismo pilatu eta absentismo zuzendu hitzen definizio operatiboa jasotzen da:

- **Deseskolatzea:** Egoera horretan derrigorrezko eskolatzeko adingabeak (6-16 urte) daude, zeinentzat ez baita matrikularik formalizatu Ikastetxe batean. Kontzeptu horretan ere sartuko da justifikatu gabeko hutsegiteak %100ekoak dituzten adingabeen egoera, matrikulaturik dauden arren.
- **Eskolako absentismoa:** Denbora jarraituan eta justifikatu gabe Ikastetxera joaterik eza da eskolako absentismoa, familiak berak onartuta edo bultzatuta, edota ikaslearen beraren borondatez aurrenerabe eta nerabeak izanez gero. Kontzeptu horren definizio operatiboan absentismoko tasa hilabetean justifikatu gabeko hutsegiteen portzentajetzat jotzen da. Txosten horretan absentismoa justifikatu gabeko hutsegiteen %20tik gorakotzat jo da. Absentismo kontzeptua Haur Hezkuntzako 2. zikloko adinaz geroztik aplikatuko da desberdintasunak prebenitu eta konpentsatzeko asmoz.
- **Absentismo pilatua:** Tarteka jasotzen da absentismo pilatuaren portzentajea ikasle absentisten artean ikasturtean zehar. Zera nahi dute adierazi tartekak:
 - %25: joan gabeko egunen %25eraino esan nahi du ikasturtean.
 - %50: joan gabeko egunen %25etik gora eta %50 artean esan nahi du ikasturtean.
 - %75: joan gabeko egunen %50etik gora eta %75 artean esan nahi du ikasturtean.
 - %100: joan gabeko egunen %75etik gora eta %99 artean esan nahi du ikasturtean.
- **Absentismo zuzenduak:** Absentista izan ostean absentismoko erregistroak izateari utzi dioten ikasleen kopurua eta portzentajea jasotzen dira 2005eko apiril, maiatz eta ekainean gutxienez.

3.2. Datuak jasotzeko ezarritako prozedura

Programan ezarritako protokoloa erabili da. Hau da, hilero bost eguna baino lehen Ikastetxeek igorri beharko dituzte Hezkuntza Ikuskaritzara eta Udaletxerra erregistro orriak, beteta, gorago azalduta dagoen definizio operatiboaren arabera hilero justifikatu gabeko hutsegiteen %20 edo gehiago duten ikasleen izenak bertan dituztela.

Erregistroak jaso ondoren, Ikastetxeko ikuskariak aztertuko ditu eta horretarako prestatu den aplikazio informatikoan sartuko dira. Aplikazio horren diseinuari esker absentismo eta/edo deseskolatzeko erregistroren bat 2004-2005 ikasturtean zehar izan duten Ikastetxe eta ikasleen kopuruen jakitun egon daiteke.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Udalek galdera-sorta bana bete dute esku-hartze eta jokabideei buruz.

Azkenik, parte-hartzaileen iritzia ere jaso da poztasuneko inkesten bidez. I. Eranskinari lotzen zaizkio datuak jasotzeko erabilitako dokumentuak.

4. ABSENTISMO ETA DESESKOLATZEKO PROBLEMAREN DIMENTSIOA BIZKAIKO LURRALDEAN

4.1. OINARRIZKO HEZKUNTZA (DERRIGORREZKO LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA)

4.1.1. Portaera absentista eta deseskolatua duten ikasle guztien kopurua:

- 1.133

Kopuru horrek oinarrizko irakaskuntzako jendearen %1,3 suposatzen du. Joan den ikasturteari dagokionez, portaera absentista eta/edo deseskolatua duten ikasle guztien kopurua %5,4ra igo da.

4.1.2. Portaera absentista duten ikasleen kopurua

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHENA			DBH			LEHENA			DBH		
Ikasle-ak	Ab-sentis-tak	%	Ikasle-ak	Ab-sentis-tak	%	Ikasle-ak	Ab-sentis-tak	%	Ikasle-ak	Ab-sentis-tak	%
23636	447	1,9	15813	393	2,5	27173	56	0,2	21541	111	0,5

4.1.3. Ikasle deseskolatuen kopurua

I. PUBLIKOAK						I. PRIVATU ITUNDUAK					
LEHENA			DBH			LEHENA			DBH		
Ikasle-ak	De-sesko-latu.	%	Ikasle-ak	De-sesko-latu	%	Ikasle-ak	De-sesko-latu.	%	Ikasle-ak	De-sesko-latu.	%
23636	27	0,1	15813	69	0,4	27173	3	0,01	21541	27	0,1

4.1.4. Portaera absentista eta deseskolatua duten ikasleen kopurua

LEHENA			DBH		
Ikasleak	Absent. eta deses.	%	Ikasleak	Absent. eta dese.	%
50809	533	1,05	37354	600	1,61

4.1.5. Absentismo pilatua. Hutsegiteen portzentajea ikasturtean zehar

4.1.5.1. Ikastetxe Publikoak

LEHENA								
GUZ- TIRA	%25		%50		%75		%100	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
474	360	75,9	75	15,8	8	1,7	4+27 (*)	6,5

(*) Bigarren batugaia ikasle deseskolatuen kopuruari dagokio.

Aurreko koadroan ikus daitekeenez, Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten portzentajerik handiena Ikastetxe publikoetan (%75,9) %25erainoko tartean biltzen da.

DBH								
GUZ- TIRA	%25		%50		%75		%100	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
462	304	65,8	55	11,9	24	5,2	10+69	17,1

(*) Bigarren batugaia ikasle deseskolatuen kopuruari dagokio.

DBHn, absentisten portzentajerik handiena (%65,8) ere %25erainoko tartean biltzen den arren, halarik ere hori beheraantz joan da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Aitzitik, nabari emendatzen da absentisten kopurua %17,1ean azken tartean (>%75 - %100).

4.1.5.2. Ikastetxe Pribatu Itunduak

LEHENA								
GUZ- TIRA	%25		%50		%75		%100	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
59	48	81,4	4	6,8	3	5,1	1+3 (*)	6,8

(*) Bigarren batugaia ikasle deseskolatuen kopuruari dagokio.

Ikastetxe Publikoetan bezalaxe gertatzen da. Ikasle absentisten portzetajerik handiena (%81,4) lehen tartean biltzen da, ha da, ikasturtean zehar pilatu den absentismoa hutsegiteen %25eraino izan da.

DBH								
GUZ-TIRA	%25		%50		%75		%100	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
138	72	52,2	25	18,1	7	5,1	7+27	24,6

(*)Bigarren batugaia ikasle deseskolatuaren kopuruari dagokio.

Ikastetxe pribatu itunduetako DBHn Ikastetxe publikoetan hezkuntza maila honetarako iruzkindu berri den joerari eusten zaio, honako zentzuan: ikasle absentisten portzentajerik handiena (%52,2) tarte txikienean da, baina, halarik ere, hemen ere gertatzen da emendatze garrantzitsu bat, Lehen Hezkuntzaren aldean, absentisten kopuruan eta portzentajeaz azken tartean (%24,6).

4.1.6. Absentismo zuzendua

IKASTETXE PUBLIKOAK				IKASTETXE PRIVATU ITUNDUAK			
LEHENA		DBH		LEHENA		DBH	
absentisten ko.: 447		absentisten ko.:393		absentisten ko.: 56		absentisten ko.: 111	
Zuzen. kop.	%	Zuzen. kop.	%	Zuzen. kop.	%	Zuzen. kop.	%
187	42	195	49	32	57	49	44

Aurreko koadroko datuek joera utzi duten edo gutxienez ikasturtearen azken hiruhilekoan zehar izan ez diren ikasle absentisten kopuru oso eta portzentajeen berri ematen digute. Hauexek izan daitezke absentismo zuzendu horren zergatiak: arazo hori gainditzeko instantzia bakoitzaren esku-hartzeen eragina edo absentismoaren definizio operatiboaren barruan egunen %20an hainbat zergatirengatik justifikatu gabe huts egiten dutenak sartzea, hilabetean bakarrik izan bada ere. Edonola ere, datuok arazoaren dimentsio zehatzago baten aurrean jartzen gaituzte, eta horrela txosten honen 4.1.2 ataleko koadroaren aurrean absentismorik larrienak, ikasturte osoan zehar gertatzen dela iritzita, Lehen Hezkuntzako 284 ikasleri eragiten die (%0,56) eta DBHko 260 ikasleri (%0,7).

4.1.7. Udalek lortutako datuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek edo beste Udal Zerbitzu batzuek hasitako edo Ikastetxeek horiei igorritako espedienteen kopuruari buruz

	Kop.	%
OGZek hasitakoak gizarte-hezkuntzako txostenak Ikastetxeetara igorrita	35	3,1
Ikastetxeek OGZe igorritakoak.	589	52 (1)
OGZek gizarte-hezkuntzako txosten eta jokat- bidearekin igorritakoak	87 337	14,8 57,2 (2)
Konpondu edo berreroanak	244	65,6 (3) - 21,5 (4)

(1) % absentismo eta deseskolatzeko kasuen guztizkoaren gainean (1133).

(2) % igorritako 589 kasuen gainean.

(3) % jokatuen 372en gainean.

(4) % absentismo eta deseskolatzeko kasuen guztizkoaren gainean (1133)..

Ikastetxeek OGZe edo beste Udal Zerbitzu batzuei igorritako 589 espedienteetatik haiei 152 kasutan bakarrik jakinarazi zieten OGZek egindakoa (%25,8). Informazio hori bideratzeko gehien erabili den prozedura ahozko mezua izan zen, jarraian Ikastetxeetako arduradunekin egindako bilerak zeudelarik. Nahiko gutxiagotan bide idatziak erabili ziren, gutun edo igortzeko ofizio, tokiko mahai, EISEko talde eta esku-hartzeko elkarrekiko egitasmoak, besteak beste.

4.1.8. Ministerio Fiskalak esku hartu dueneko espedienteen kopurua

	Kop.	% (1)	% (2)
Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak igorriak	18	1,6	0,02
Beste instantzia batzuek igorriak	10	0,9	0,01
GUZTIRA	28	2,5	0,03

(1) % absentismo eta/edo deseskolatzeko kasuen guztizkoaren gainean

(2) % Derrigorrezko hezkuntzako ikasleen guztizkoaren gainean.

Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzatik, OGZek edo beste Udal Zerbitzu batzuek bidalitako 30 espediente jaso eta horietan protokoloan ezarritakoa bete nahian aztertu ondoren, 18 igorri ziren Ministerio Fiskalera.

Ministerio Fiskalak Lurralde Ordezkaritzak berari igorritako 18 kasuetan eta Programan xedatua dagoena ez bezalako beste bide batez igorritako beste 10 kasuetan esku-hartzeko prozedura berbera erabili du: a) familiarekin eta seme-alaba absentista edo deseskolatuekin hitzordu batean adostea, b) hiru hilabetean segimendua burutzea ebaluazioa balioesteko asmoz, Ikastetxeak emandako informazioa lagun, eta c) egoera geroxeago ebaluatzea kasua ixteko edo Epaitegian salatzeke. Ikasturteon Fiskaltzak salaketa jarri du Instrukzioko Epaitegiaren aurrean bi haurren gurasoen aurka bertan behera utzi izanagatik. Hezkuntza Ordezkaritzak espediente bakoitzarekin egindako ku-deaketen gaineko informazioa jaso du Fiskaltzaren aldetik.

4.1.9. Bizkaiko Foru Aldundiari igorritako espedienteen kopurua (Gizarte-Ekintza Saila)

Gizarte Zerbitzu eta beste Udal Zerbitzu batzuetatik 13 kasu igorri dituzte Bizkaiko Foru Aldundira, babesik eza zegoelakoan.

Haur Zerbitzu horretara igorritako 13 kasuetan, esku-hartze prozesua egoera sozio-familiarraren balioespina egitean oinarritu da, seme-alaba egon ote litekeen babesik ez maila zehazteko eta hala balegokio babesteko neurri ego-kia ezartzeko xedez.

6 kasutan, seme-alaba bere familia ingurutik bereizi beharrik eza balioetsi da, familiari lagundu ahal izateko hezkuntza eta terapeutikako zerbitzuak hornituko dituen hezkuntza programa bat sartuz.

Beste 4 kasutan beharrezkoa izan da babesteko neurriak hartzea haurra bere familiatik bereizteko, zaintza egoitza eta/edo familiako harreraren bidez erabiliz.

3 kasutan egoera balioetsi da, Haur Zerbitzu horrek esku hartzea beharrezkoa ez dela zehaztuz, eta kasua Oinarrizko Gizarte Zerbitzura igorri dute beharrezkotzat joz gero, komunitateko esparrutik esku-hartzeari ekin diezaioaten.

4.2. HAUR HEZKUNTZA

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIVATU ITUN-		
Ikasleak	Absentista	%	Ikasleak	Absentista	%
13313	194	1,4	14059	3	0,02

Oharra: horiei dagozkien datuak ere eskaintzen dira, erabiltzeak eskolatzea lehen adinetatik sustatzea helburu bakarra izango du baina, baztertu samar dauden herrietako kasuetan batez ere.

4.3. ABSENTISMOA ETA DESESKOLATZEA BANATZEA IKUSKARITZAKO ZONALDEKA

Guztira	Zonaldeak			
	1	2	3	4
115535 (1)	20796 (%18)	27786 (%24,05)	39286 (%34)	27671 (%23,95)
1330 (2)	35 (%2,6)	40 (%3,01)	873 (%65,6)	382 (%28,7)
Absentis- moko indi- zea	%0,16	%0,14	%2,22	%1,38

- (1) *Guztizko honetan Bizkaia Lurraldeko Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle guztiak kontabilizatzen dira. Guztizko hori Ikuskaritzako lau zonaldeetan banatzen da honekin batera doan taularen arabera. 1. Zonaldea: Durangoaldea, Lea-Artibai eta Busturialdea. 2. Zonaldea: Uribe-Kosta. 3. Zonaldea: Bilbao eta Goi Nerbioi. Eta 4. zonaldea: Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri.*
- (2) *Guztizko honetan Bizkaia Lurraldeko Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) eta Haur Hezkuntzako portaera absentista eta deseskolatua duten ikasle guztiak kontabilizatzen dira, gero lau zonaldeetan banatzeko. Ikus daitekeenez, banatzea ez da zuzena zonaldeetan, baizik eta 3 eta 4. zonaldeetan biltzen da batez ere.*

4.4. ERAGINA IZAN DUTEN IKASTETXEAK

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIVATU ITUN-		
Kop. o.	Eraginak	%	Kop. o.	Eraginak	%
252	86	34,1	137	40	29,2

Portaera absentista eta/edo deseskolatua duten 6tik gora ikasle dituzten Ikastetxeak

IKASTETXE PUBLIKOAK			IKASTETXE PRIVATU ITUN-		
Kop. o.	Eraginak	%	Kop. o.	Eraginak	%
252	39	15,5	137	5	3,6

Bigarren koadro honetan eskaintako kopuru eta portzentajeek eskola absentismoko arazoek eragiten dieten Ikastetxeen irudi errealistago bat eskaintzen dutelakoan gaude. Atal honen lehen koadroan islaturik daude 2004-05 ikasturtean zehar gutxienez ikasle absentista edo deseskolatu bat izan duten Ikastetxe guztiak.

5. PARTE HARTZAILEEN IRITZIA

5.1. IKASTETXEAK

Poztasuneko inkesta bat egin zen balioespeneko eskala 0tik 10erakoa zelarrik, eta itemak segidan datoz; galde-sorta hori ikasturtean zehar absentismo eta/edo deseskolatzeko erregistroren bat izan duten 126 Ikastetxeetara bidali zuten. Inkesta horiek 85 ikastetxeren erantzuna jaso zuten (%67,5).

Lortutako emaitzak hurrengo koadroan ageri dira:

Oro har, zera izan dut pozgarria:		X
1.	Eskola absentismoaren segimendu eta kontrol-eko egitasmo	7
2.	Ikastetxearen jokabidea segimendu eta kontrol honetan	8,5
3.	Beste erakunde edo instantzia batzuen jokabide eta esku-hartzea	6,3
4.	Ikuskaritzatik jasotako informazioa prozesua gauzatzeko asmoz	7,4
5.	Esku-hartze horren ondorioz eragindako hobekuntza	6,02

5.1.1. koadroa Ikastetxeetako inkesten ondorioak

- Lortutako batez bestekoak honako puntuazioen artean dabilta: 6,02– 8,5.
- Puntuaziorik handiena (8,5) bigarren itemari dagokio, hots, absentismoaren segimendu eta kontrolean Ikastetxeak burutu duen jokabideari buruz. Laugarren itemari dagokion puntuazioa ere bada altua (7,4), Hezkuntza Ikuskaritzatik prozesu hori aurrera eramateko jasotako informazioaren gainean.
- Puntuaziorik txikiena (6,02) esku-hartze horren ondorio gisa eragindako hobekuntzaren balioespenari dagokio.
- Item ia guztietan gertatzen da, baina puntuaziorik txikienak lortu dituzten horietan batez ere, emandako puntuazioak (0tik 10era) tarte osoan zehar banandu egin direla. Horrek esan nahi du parte hartzaileen iritzia oso ezberdina dela norberak horri buruz izan duen esperientziari jarraiki.
- Inkestari erantzuna eman dioten 85 Ikastetxerik gehienek horrez gain iradokizun, ekarpen, kritikak... ere adierazi dituzte. Ekarpenok honako puntu sendo eta hobetzeko arlo batzuetan laburtuko dira, eta horietan lagundu egingo dute datorren ikasturterako zuzenketa egokiak ezartzen.

a) Puntu sendoak:

- Protokoloko urrats bakoitzean definiturik dagoen esku-hartzeaz berreroatealortu diren kasuak eta sartuta dagoen Erakunde bakoitzaren erantzuna.
- Zenbait Udalekin batera egindako lana eta koordinazioa. Zehatz esanda, Ikastetxe batzuek euren Udalen konpromisoa azpimarratzen dute.
- Ikasleei laguntzeko kontrola hobetu izana Ikastetxeen beren aldetik, zeren segimenduko planak balio izan baitu familiei azaltzeko haurtzaro eta nerabezaroaren hezkuntzarako eskubidean Erakunde bakoitzak erakutsi duen parte-hartzea.
- Ikastetxeetatik gizarte-hezkuntzako txostenak egiteari emandako garrantzia, zeren egin denean ikusi baita hobekuntza nabari-nabaria, eta gainera balioetsi egin da Udalen Gizarte Zerbitzuekin batera esku hartzen laguntzeko bide gisa.
- Instantzia guztiek gogoan izan behar dute, zalantzarik gabe, esku-hartea Haur Hezkuntzako aldiak geroztik egin beharra dagoela, arazoa hasieratik bertatik txikitu behar denez gero.
- Ministerio Fiskalaren esku-hartzea. Zehatz esanda, zenbait Ikastetxek balioesten dute ikasturte honetan Fiskaltzak gertutik garatu duen sartze eta lana.

b) Hobetzeko arloa

- Esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezten, arinagoak izan behar lukete oro har. Kasu batzuetan arazoak urte batzuk iraun du, eta horrela ikasleek 16 urte betetzen dituztenez, ez dago esku hartzerik.
- Arduraz azpinarratzen da koordinazio eraginkorraren premia sartuta dauden Erakunde guztien artean. Halaber, agertu egiten da instantzia jasotzaileak esku-hartzearen berri eman behar diola igorleari.
- Behin eta berriro oroitarazten zaie Erakunde guztiei esku-hartzeko protokoloan adierazitako urrats guztiak jarraitu beharra dagoela.

- Ikastetxeen aldetik azpimarratzen da Haur Hezkuntzako haurren absentismoaren segimenduari sendoagoz ekitearen garrantzia. Era berean, beste batzuek 16tik gora urte dituztenei dagokienez egiten dute.
- Kasu bakoitzeko norbanako azterketan arazo hori konpontzeko neurririk egokienak azaldu behar lirateke. Kasu batzuetan Gizarte Zerbitzuek familiei laguntzea izango litzateke eginkizuna gurasoen eginbeharrak bete daitezen, edo sartzeko kontratuak berrikus. Beste kasu batzuetan, Udaltzaintzaren esku-hartzea eskatzea. Bestetan, azken finean, hezkuntza programa diferentzial batzuk lantzea. Ikastetxe batek dio arazoaren gunera joan behar litzatekeela, eta azaltzen du huts egiten dutela ikasi nahi ez dutelako, zeren mundu guztiak ez baitu balio ikasteko, eta irakaskuntza adikorra porror hutsa dela.
- Azkenean Ikastetxeek azaltzen dute esku-hartze zehatzen premia, eta arazo hori konpontzeko xedez familiek erantzukizunak bete beharra daukatela.

5.2. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK ETA BESTE UDAL ZERBITZU BATZUK

Poztasuneko inkesta bat egin zen balioespeneko eskala 0tik 10era duelarik, eta itemak segidan datoz; galdera-sorta hori bidali genien Bizkaiko Udal eta Mankomunitateetako gizarte-hezkuntzako zerbitzuei. Inkestok haietariko 27ren erantzuna jaso zuten (%25,23).

Lortutako emaitzak hurrengo koadroan ageri dira:

Oro har, zera izan dut pozgarria:		X
1.	Eskola absentismoaren segimendu eta kontrolko egitasmoa	6
2.	Udalaren jokabidea segimendu eta kontrole horretan	6,7
3.	Beste erakunde edo instantzia batzuen jokabidea eta esku-hartzea	5,1
4.	EUDELetik jasotako informazioa prozesua aurrera eramateko xedez	5,9
5.	Lortu den hobekuntza esku-hartze horren ondorioz	5,9

5.2.1. Koadroa. Udalen inkestei egindako erantzunak

- Lortutako batez bestekoak honako puntuazioen artean daude: 5,1–6,7.

- Puntuaziorik handiena (6,7) bigarren itemari dagokio, absentismoaren segimendu eta kontrolean Udalak izan duen jokabideari dagokiolarik. Hurrengo puntuaziorik handienak laugarren eta bosgarren itemei dagozkie (5,9) EUDLEtik jasotako informazioari dagokionez prozesu eta hobekuntza aurrera eramateko asmoz esku-hartzearen ondorioz.
- Puntuaziorik txikiena (5,1) jokabidearen eta beste Erakunde batzuen esku-hartzearen balioespenari dagokio.
- Item guztietan gertatzen da lortutako puntuazioak ia tarte osoan banatu direla (1etik 9ra oro har). Horrek zera esan nahi du: parte hartzaileen iritzia oso desberdina da bakoitzak horri buruz izan duen esperientziaren arabera.
- Inkerari erantzun dioten Udal eta Mankomunitateetako zerbitzuek iradokizun, ekarpen, kritikak... ere adierazi dituzte. Horrez gain, dokumentu bat ere bidali genien absentismo eta deseskolatzeari dagokionez egindako beste esku-hartzeak jasotzeko asmoz, eta 61 Udalek bete zituzten, hau da, kontsultatuetariko %57k, eta horrek Bizkaiko biztanle guztien %82,63 osatzen du. II. Eranskinetan dagoen dokumentu horren zazpigarren atalean jasotzen dira Programaren funtzionamendua hobetzeko balio lezaketan iradokizun, ekarpen eta asmoak. Ekarpenguztiak hurrengo puntu sendo eta hobetzeko arloetan laburtu dira, eta horietan datorren ikasturterako zuzenketa egokiak ezartzen lagunduko dute.

a) Puntu sendoak:

- Ikastetxe eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen artean hasitako elkarrekin lan egiteko lerro berriak. Eredua izan da sartzeko hitzarmenak burutzea Oinarrizko Irakaskuntza bukatzearen ondoren nerabeen kasuan; horietan Ikastetxeak (heziketako alderdiak jasoz), OGZek, familiek eta ikasleek hartu dute parte. Hitzarmenotan alderdi akademikoak ez ezik aisia, harremanak... ere landu dira. Horiek guztiek berekin daramate segimenduko egitasmo bat. Beste adibide bat dira babespen familiar egokirik izan gabe Ikastetxeetan botatzeko diziplinazko espedientea irekita daukaten 13-16 urte bitarteko nerabeentzako udal programak. Azkenik, eskolako laguntza eta segimenduko programak daude, laguntza familiarrik edo eskolako orduen ostean zeregin akademikoak burutzeko gunerik ez duten 8-16 urte bitarteko haur eta nerabeentzat.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzu eta EISE taldeak Ikastetxeetan aurkezteak erraztu egiten du harremanetarako bideak irekitzea.

- EUDELEk eta segimenduko taldeak egiten diharduten Programari buruzko informazio lana.
- Programa tresna erabilgarria da topatzen diren absentismo eta deseskolatzeko kasuetan zer egin behar den jakiteko xedez.

b) Hobetzeko arloak

- Egoera txar-txarrean dauden kasu asko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara (OGZ) igortzen dira ikasleak nerabezaroan daudenean, baita dagoeneko 15 edo 16 urte dituztelarik ere, esku-hartzeko aukera mugatuz, eta, hortaz, horrexen eraginkortasuna murriztuz. Hori dela eta, beharrezkoa da ahalik goizen aurkitzea eta sasoiz esku hartzea.
- Behin eta berriro adierazten da sartuta dauden Erakunde guztien arteko koordinazio eraginkorra beharrezkoa dela. Ildo horretan jakinarazten da Ikastetxe guztiek ez dutela absentismoko parterik bidaltzen Udaletxera, batzuek ez dutela gizarte-hezkuntzako txostenik igortzen, eta koordinazioak daudenean telefonoz izan ohi direla edo bileren bidez, komunikazio edo txosteneko formato idatziak gutxitan erabiliz. Bestalde zera ere eskatzen da: Hezkuntza Ordezkaritzak OGZe jakinaraz diezaiela nola bukatuko den esku-hartzea igorritako espedientei dagokienez.
- Kasu batzuetan beharrezkoa izango litzateke udal arlo guztien arteko koordinazioa hobetzea, eurak behar dituzten giza baliabide eta materialez hornituz. Beste kasu batzuetan adierazten da eskatzen duten Udalek Hezkuntzako Arlo bat beren eskura eduki behar luketela, udalerriko Ikastetxeei dagozkien gaiak kudea ditzan, OGZez gain.
- Argi eta garbi azpimarratu behar da oso garrantzitsua dela benetan Ikastetxeetako tutoreak sentibilizatzea ikasleak eskolara joaten ote diren kontrolatzeko, eta baita informazio hori Ikastetxeko Ikasketa Burutzari edo Zuzendaritzari helarazteko ere, zeren kasu askotan azken horiek ez baitituzte jasotzen ikasle batzuen hutsegiteen jakinarazpenak, OGZek beste bide batzuen bitartez Ikastetxera ez doazela dakiten arren. Aurreko guztiak oztokatzen du esku-hartze egokia egoera horiek konpontzen saiatzeko asmoz.
- EUDELEk eta Segimenduko Batzordeak sartuta dauden zerbitzu eta Erakundeen motibazio, inplikazio eta mobilizazioarekin zerikusia duten beste eginkizun eta lan batzuk beren gain hartu behar lituzkete, eta baita jokabideko pauta eta irizpideak ezarri ere.

- Interesgarria izango litzateke prozesu bera absentismoko arazoetan ez ezik egokitze, portaerako... arazoak dituzten beste kasu batzuetan ere jarraitzea, edota aurkitu den eta berekin arriskua eta/edo babesik eza eraman dezakeen beste edozein egoeratan.
- Sartuta dauden eragile guztiek bete egin behar dituzte Programak markatutako epeak.
- 0 eta 3 urte bitarteko eskolatzea ez orokortzea eskolatze goiztiar egokirako oztopotzat jotzen da.
- Eskolako absentismoari erantzuna emateko asmoz, oro har esku-hartze handiko kasuak direnez gero, eta aldaketak eragiteko xedez adingabe absentistaren familia osora hedatzen direlarik, zeraren egokitasuna behar da balioetsi: a) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eskura jartzea adingabea babesteko zerbitzu espezifiko bat, hezkuntzako eta gainbegiratze psikosozialeko laguntzekin batera, eta b) koordinazioko lana burutzea, sartuta dauden beste eragileekin –Hezkuntza, Osasuna, Udal Zerbitzuak– batera, sare baten barruan hain zuzen.
- Beste esku-hartze mota bat egin behar litzateke etnia ijitoko taldearekin; izan ere, absentismoko indize handi-handia erregistratzen da talde horretan.

5.3. FORU ALDUNDIKO HAUR ZERBITZUA

Elkarrizketa batzuen bidez jaso dira iritziak, Haur Zerbitzuko teknikariek eginda, Jasotze, Balioespen eta Orientabideko Atalak burututa zehazki (16 profesional).

Oro har, zera izan dut pozgarria:		X
1 ^a	Eskolako absentismoko segimendu eta kontrolleko egitasmoa	8
2 ^a	Haur Zerbitzuak segimendu eta kontrol horretan jokatzea	6
3 ^a	Beste erakunde edo instantzia batzuen jokabide eta esku-hartzea	7
4 ^a	Prozesua aurrera erodateko jasotako informazioa	6
5 ^a	Esku-hartze horrek eragin duen hobekuntza	6

5.3.1. Koadroa. Haur Zerbitzuaren inkestaren emaitzak

- Lortutako batez bestekoa honako puntuazioan izango zen: 6
- Puntuaziorik handiena (8) lehen itemari dagokio, absentismoko segimendu eta kontroleko egitasmoari dagokiokarik, Programako segimenduko Batzordeak burutzen diharduen lana oso positibotzat jota. Hurrengo puntuaziorik handienak laugarren itemari dagozkio, non nabarmentzen baita Adingabeen Fiskaltzaren esku-hartzea.
- Prozesua burutzeko asmoz jasotako informazioari dagokionez (6), argi ikusten da gaurkoz Bizkaiko Lurraldeko zenbait zonaldek ez dutela gauzatzen ezarritako protokoloa, eta hori dela medio programa hori ez dago orokortua. Iradokizun batzuk ekarri dira, eta bertan azpimarratzen da nahaste-borrasteren bat dagoela ikastetxe batzuetan zerrenda zein gizarte-hezkuntzako txostenak Hezkuntza Ordezkaritzara nahiz Haur Zerbitzura bidaltzen dituztenean; bestalde, Oinarrizko Gizarte Zerbitzu batzuetatik kasu batzuk igortzen dira Hezkuntza Ordezkaritzara nahiz Haur Zerbitzura aurreko esku-hartzerik gabe eta aldi berean.

a) Puntu Sendoak:

- Programa egoteak erraztu egin du gaitasun, esku-hartzeko esparru eta sartuta dauden Administrazio Publiko bakoitzaren erantzukizun graduak jakitea.
- Gizarte-Hezkuntzako txostena tresna baliagarria da, eta haurraren eboluzioko garapena jakiteko bide dugu.
- Haur Zerbitzuaren aldetik azpimarratu nahi da Bilboko Adingabeen Fiskaltzak protokoloa betetzean jarri zuen eragina. Kasu batzuetan Fiskaltza horren esku-hartzeak jarrera positiboa sorrarazi du familian, baita kasu askotan haur eta nerabeetan ere.
- Programa egoteak nabarmentzen du absentismo arazoak daudela, eta beharrezkoa da Segimenduko Batzordeak burutzen diharduen lana.

b) Hobetzeko arloak.

- Premiazkotzat jotzen da datuak jasotzeko modua hobetzea kasu bakoitzaren eboluzioa eta prozeduraren argitasuna hobeki jakiteko.
- Udalek beren gain hartu behar dute programa hori beraren premia zein balioa onetsiz, zenbait udalerritan batez ere.

- Sartuta dauden Erakunde guztien arteko koordinazio eraginkorra beharrezkoa dela adierazteari ekiten zaio eten gabe. Halaber, egindako esku-hartzea igorri duen entitateari informazioa bihurtzea beharrezkoa dela agertzen da.

6. ONDORIOAK

Ikastetxeen, OGZen edo beste Udal Zerbitzu batzuen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren iritzi eta poztasunari dagokionez, eskolako absentismoaren kontrol eta segimendurako ezarritako Programaren gainean, hona hemen ondorioak:

- 0 puntutik 10erako eskala batean, Ikastetxeek (7,00), OGZek edo beste Udal Zerbitzu batzuek (6,00) zein Haur Zerbitzuak (8,00) agertzen dute ikasle absentista eta/edo deseskolatuen segimendu egitasmoarekin ados daudela.
- Gainera, ikastetxeek balioespen handia agertzen dute (8,50) segimendu eta kontolean izan duten jokabideari buruz. Gauza bera gertatzen da Udal Zerbitzuekin: kudeaketari inkesta osoko puntuaziorik handiena ematen diote (6,7). Halarik ere, kritikoa ageri dira sartuta dauden beste Erakundeen lanarekin. Horrek berriro erakusten digu beraien artean koordinazioa eta harremana bultzatzeko premia.

Puntuaziorik txikiena (6,02) Ikastetxeek jokabide horren ondorioz eragindako hobekuntzari ematen diote. Udal zerbitzuen kasuan puntuaziorik txikiena (5,1) beste Erakunde batzuen jokabideari dagokio, aurreko atalean adierazten zenez. Baina batezbestekook puntuazioetan dagoen sakabanatze handitik datoz (0 puntuaziotik 10eraino). Horrek esan nahi du Erakundeen esperientzia oso ezberdina izan dela, beraiek beste instantzia batzuei bidalitako txostenekin erantzunik batere sentitu ez dutenetatik, eta, ordea, erantzun guztiz pozgarria izan dutenetatik.

- Edozelan ere, Udal Zerbitzuek agertzen duten poztasun maila beste bi erakundee-na baino txikiagoa da.
- Bestalde, ikasleen bertaratzearen kontrolean eragindako hobekuntza positibotzat jotzen dute Ikastetxeek. Ikastetxe batzuek, gainera, Udalekin izandako koordinazioa azpimarratzen dute, gizarte-hezkuntzako txostenak egitearen garrantzia eta Haur Hezkuntzatik esku hartu beharra. Udal Zerbitzuen kasuan euren eta Ikastetxeen artean sortutako lankidetzako lerro berriak balioesten dira, eta horietatik aukera eman diete esku-hartzeko programak elkarrekin ezartzeko. Halaber, aintzat hartzen dute absentismo eta deseskolatze arazo baten aurrean zer egin jakitea, eta arazo horren gainean EUDELEk eta Programaren Segimenduko Batzordeak eskaintzen duten informazioa.

- Hona hemen dena delarik seinalatzen diren hobetzeko arloak: koordinazio eraginkor eta hobearen beharra, Erakunde guztien arteko komunikazio hurbilagoa, eskuhartzeetarako denbora laburragoa erabiltzea, eta kasu bakoitza banaka aztertzea neurri diferentzialak ere proposatuz, eta horiek berekin eraman beharko dute familiariek euren erantzukizunak betetzeko eskakizun eraginkorra. Halaber, adin txikiagoetan jokatzeko azaltzen da, arazoa hasten denean, eta ez itxarotea nerabegarora arte, hots, dagoeneko jokabidea ezarrita dagoen adinera arte. Udal handiei dagokionez, gainera Oinarrizko Irakaskuntzako aldiko absentismo eta deseskolatze arazoek gehien eragiten dieten zonaldeetan kokatuak daudelarik, zera eskatzen da: absentismoko batzordeak sortzea, eta bertan daude arazo hori konpontzeko eragina izan dezaketen arloak, premiazko giza baliabide materialak jaso behar dituztenak.

2004-2005 ikasturtean zehar Bizkaian gertatu zen arazo horren dimentsioari dagokionez, honako ondorioak eskaintzen dira:

- Portaera absentista eta deseskolatua duten ikasle guztien kopurua 1.133 da (Oinarrizko Irakaskuntzako jendearen %1,3). Kopuru horrek aurreko ikasturtekoaren aldean %5,4ko emendatzea eragin duen arren, ez dugu uste benetako emendatze bati zor zaionik, Ikastetxeek datuak sistematikoago jaso izanari baizik.
- Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasleen %1,9k eta DBHko %2,5ek portaera absentista izan dute.
- Ikastetxe pribatu itunduetan Lehen Hezkuntzako ikasleen %0,2k eta DBHko %0,5ek izan dute portaera hori.
- Lehen Hezkuntzan ikasturtean zehar pilatu den portaera absentista aztertzen bada, portzentajerik handiena %25eko tartean dago. Hau da, Ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako absentisten %75,9k eta Ikastetxe pribatu itunduetako %81,4k ikasturtean zehar galdutako eskola egunek ez dute gainditzen ezarritako egunen %25.
- DBHn, absentismoaren portzentajerik handiena ere, Ikastetxe publikoetan %65,8 eta Ikastetxe pribatu itunduetan %52,2, %25erainoko tartean biltzen den arren, halarik ere txikiagoa da Lehen Hezkuntzako datuen aldean. Alabaina, nabari emendatzen da absentisten kopurua, %17,1 Ikastetxe publikoetan eta %24,6 Ikastetxe pribatu itunduetan, egun galduen portzentajerik handienaren tartean (%75 baino gehiago).

- “Absentismo zuzendua”ri dagokionez, apiril, maiatz eta ekainean zehar gutxienez erregistrorik ez dagoela ulertuta, Ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako ikasle absentisten %42an gertatu da, eta DBHkoen %49an; eta Ikastetxe pribatu itunduetan %57an Lehenean eta %44an DBHn.
- Ikasle deseskolatuei dagokienez, Ikastetxe publikoetan %0,1 izan da Lehen Hezkuntzan eta %0,4 DBHn. Ikastetxe pribatu itunduetan deseskolatzea Lehen Hezkuntzan %0,01 izan da eta DBHn %0,1.
- Haur Hezkuntzan, Ikastetxe publikoetan, ikasleen %1,4k portaera absentista izan dute, eta %0,02k Ikastetxe pribatu itunduetan.
- Portaera absentista eta deseskolatzea handiagoa da Ikastetxe publikoetan (Lehen Hezkuntzan %2, eta DBHn %2,9) Ikastetxe pribatu itunduetan baino; horiek Lehen Hezkuntzan %0,22 dute, eta DBHn %0,64. Halarik ere, zera esan daiteke: absentismo eta/edo deseskolatze aldagaiak zerikusit handia daukala ikastetxea kokatua dagoen zonaldearekin. Izan ere, ikasle absentistak ez dira zuzen banatzen Lurralde osoan barrena, ezpada bi zonaldek (Ikuskaritzako 3 eta 4 zk. zonaldeak) ikasle horien %94,3 bereganatzen dute.
- Absentismo eta/edo deseskolatzeko arazoak dituzten Ikastetxeak Ikastetxe publiko-koen %34,1 eta pribatu itunduen %29,2 izan dira. Ikastetxeok absentismo eta deseskolatzearen mapa zehatza deskribatzen dute lurralde eta zonaldeka:
 - Bizkaian eraginik handiena jasan duten zonaldeak, lehenago esana denez, Ikuskaritzaren 3 eta 4 zk.ei dagozkie. 1 eta 2 zonaldeek tinko duten indizea batezbestekoa baino askoz gutxiagoa da, 4 zonaldea absentismoaren batezbestekoaren inguruan dago, eta 3 zonaldea bereziki nabarmentzen da absentismoaren indizea bikoiztu egiten duelako.
 - Portzentajea eskaintzeko asmoz Ikastetxe bakoitzean 6 ikasle absentistako irizpidea baldin badarabilgu, eragina izan dutenen portzentajea %15,5 izango da Ikastetxe publikoetan eta %3,6 pribatu itunduetan. Badago beste irizpide bat are zorrotzagoa dena, hots, Ikastetxea eragintzat jotzeko xedez portaera absentista eta/edo deseskolatua duten ikasleen %20 edo gehiago dutenak hartzea (informazio hori ez da zehaztu txosten honetan), eta horrek hauexek aurkezten ditu: Haur eta Lehen Hezkuntzako bost Ikastetxe publiko, Bigarren Hezkuntzako hiru Institutu eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe pribatu itundu bat. Ikastetxe guztiok gorago aipatzen diren zonaldeei dagozkie.

Azkenik, agertu beharra dago arazo horren dimentsioa zehazteko erabilitako portzentajeak Hezkuntza Sistemaren proportzio txiki bati doazkion arren, zera ez dugula ahantzi behar:

- Eragina izan duten ikasleak, zenbaki absolututan 1.133, 6-16 urte bitartekoak direla, zeinen derrigorrezko eskolatzea gizarteak ezarri duen mekanismoa baita hezkuntzarako eskubidea bermatzeko xedez, eta hori ez da benetan gauzatzen.
- Prebentibo eta sintomatikoki ez jokatzeak, Aginte Publikoek familien gainean esku hartzeko duten erantzukizuna ez betetzea adierazteaz gain, geroko bazterketa soziazat onartutako kausetako bat ez kentzea ere badakar berekin.

7. PROPOSAMENAK

- Batzordeak ikastetxeak animatu nahi ditu bertaratzeko kontrol sakona burutzeko ahaleginei eustera, eta baita areagotzera ere aukerarik baldin badago. Ez da kontrol hori jokaera iraintzailatzat jo behar, baizik eta eragin izan duten ikasleentzat gerta daitekeen arrisku akademiko, pertsonal edo sozialeko egoera batean jokatzeko lehen pausotzat. Ildo horretan, Batzordeak eskertu egiten dizkie irakasleei eta, oro har, eskola-bertaratzearen egoeraren kontrolean erantzukizuna duten gizarte-eragile guztiei euren jarduna eta zeregin horretan erakutsi dituzten ahaleginak.
- Arazoaren dimentsioa dela eta (oso txikia kuantitatiboki Hezkuntza Sistemari dagokionez oro har, baina larria ase gabeko oinarrizko eskubidearen garrantziagatik), esku-hartze bereizi bati ekin beharra dago, eta horrexek kontenplatuko ditu eragirik gehien jasan duten zonalde eta Ikastetxeak alde batetik, eta kasu bakoitzaren banako azterketa bestetik. Nolanahi ere, lehentasuna eman behar zaie adin txikienak dituztenei eta absentismorik larrienari, hau da, ikasturte osoan zehar dirauenari; izan ere, horretarako esku-hartzea eta segimendua bermatu egin behar dira harik eta sartuta dauden haur eta nerabeen eskola egoera normalizatu arte.
- Batzordeak atzeraezintzat jotzen du elkarrekiko jokaera koordinatu, arin eta eraginkorra bermatzen duen prozedura arbitratu eta ezartzea, Udaletan honako osagaiak sartuta egonez gero: udal arlo batzuk erantzun eraginkorrik jaso gabe dauden absentismo eta/edo deseskolatzeko arazoak tratatu eta konpontzeko.
- Absentismo mota bakoitzaren kausen azterketan sakondu beharra dago horiei jarraiki zuzentzeko neurririk eraginkorrenak proposatzeko xedez. Neurriok jasotzaile desberdinak izango dituzte arrazoiz hezkuntzako aldi bakoitzaren arabera. Lehen

Hezkuntzan familiak izango dira batik bat, baina DBHn ikasleengana berengana ere joko dute, eta dagozkien Ikastetxeek esku hartuko, hain zuzen.

- Batzordeak oso positibo balioesten ditu eragile eta Erakunde guztiek burututako ahaleginak programaren aplikazioko bigarren ikasturte honetan zehar harremanak eta esku-hartze koordinatua hobetzeko; hala eta guztiz ere, zerari ekin behar zaio oraindik: esku-hartzean diharduten Erakunde eta instantzia guztiek euren jokaerak jakinarazteari ardura handiz, ofizio erregistrodunetz eta programaren barruan dauden protokoloen epeak betez, absentismo eta/edo deseskolatzeko kasuak igorri dizkieten entitateei bidalita, eskatu zaien norabidean jokatzerik ez daukatenean ere.

Ildo horretan iradokitzen da eskola absentismo eta deseskolatzearen tratamenduan ari den entitate edo erakunde bakoitzean erregistro bakar bat sortu eta mantentzea (kontu honi dagokion dokumentazio guztiaren sarrera eta irteera erregistratzen dituen leku eta/edo pertsonatzat hartuta), zeren uste baita horrexek hobetu baitezake harremanaren eta arazo batzuk konpontzearen kontrola.

- Adingabe absentista edo deseskolatuei laguntzen diharduten parteen arteko harremana hobetzeko era bat, hots, Ikastetxeen, Hezkuntza Ikuskaritzaren, Berritzeguneen eta Gizarteko Udal Zerbitzuen artekoa zaintzeko modu bat, gainera banako kasu bakoitzaren esku-hartze zehatzen segimendua hobetzeko ere, eta “Absentismoko mahai lokalak” dira. Esperientzia honek –udalerrri batzuetan jarri da martxan– berretsi egiten du lehenago azaldutakoa; beraz, Batzordeak uste du absentismo eta deseskolatzeko arazoak dituzten udalerrietan “Mahai” horiek sortzea bultzatu beharra dagoela.
- Beharrezkoa da joan den ikasturtean Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzaren aldetik Adingabeen Fiskaltzarekin izandako topaketei ekitea. Aurtengo topaketetan txosten honen datuak jakinaraziko dira, eta Fiskaltzara edo dagokion instantzia judizialera igorritako kasu bakoitzaren banako eboluzioa elkarrekin aztertzen jarraituko da.
- Lurralde Ordezkaritzaren aldetik dagokionez, edo Hezkuntza Sailaren beste instantzia batzuetatik, definitu behar dira irizpideak ikasleen artean absentismo handia duten ikastetxeak LPZri dagozkion irizpide diferentzialekin tratatu ditzaten, baita ikastetxe horietako pertsonalari, heziketa proposamenei, dotazio ekonomikoari... dagozkielarik ere. Horrela aurreikusten du Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legeak, zeinen 10. artikulua zera agintzen baitu: berdintasun printzipioa eta dauden diskriminazio egoerak kentzea eraginkor egiteko, urteroko EAE-ren Aurrekontu Nagusietan baliabideak hobeki banatzea ahalbidetuko duen konpentsazioko fondoan sartu beharreko kreditoak jasoko dira. Irizpide diferentzial horiek lotuta egon behar dute ikasleei laguntzeko proiektu eta/edo planak burut-

zeari. Zehatzago, eta lehen urrats gisa, absentismoaren indizea %20tik gorakoa duten ikastetxeei lehentasuna ematea azaltzen da.

- Bizkaiko Foru Aldundiak eta zeregin horretan sartuta dauden Udalek, gizarteko esku-hartzearen esparruan eskumenak banatzean bakoitzari dagokiolarik, absentismo eta deseskolatze arazoek gehien eragiten dieten zonaldeetan jokabide neurri diferentzialak proposatzeko era aztertu beharko dute, horri buruz Hezkuntza Administrazioak garatzen dituen jokaerei kalterik egin gabe.
- Azkenik eta iaizko txostenean bezala, Batzorde horrek ezinbestekotzat jotzen du deseskolatze eta eskola absentismoko arazoari konponbidea jartzeko programan sinatu duten erakundeek eta baita euren instantzia guztiek ere “Hezkuntzarako eskubideak bermatzeko Programa”n euren gain hartu zituzten neurri guztiak garatzea; orain arte praktikan jarri ez direnak batez ere. Eta bereziki eta gogo handiagoz, sei urtetik beherakoak eskolatzeko xedeei lotuta daudenak eta familien eskariei lehentasuna emateari hiru urtetik beherako seme-alabak Haur Eskoletan sartzea helburu dutenean.

Bilbon, 2005eko abenduaren 27an

SEGIMENDUKO BATZORDEA

Hezkuntza Konpentsatzaileko Partzuergoa

- . Susana Barrio

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila:

- . Inmaculada Cereceda
- . Almudena Gabiola
- . Candi Hernández

Bizkaiko Foru Aldundia

- . Alazne Madinabeitia
- . Nagore Zubiaur

EUDEL

- . Dorleta Goiburu
- . Manuela González
- . Iñaki Iglesias
- . Javier Ruiz



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Gizarte
Ekintza Saila
Departamento
de Acción Social

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
IKERKETA SAILA
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Delegación Territorial de Bizkaia

ERANSKINAK



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Gizarte
Ekintza Saila
Departamento
de Acción Social



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
IKERKETA SAILA
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Delegación Territorial de Bizkaia

I. ERANSKINA

IRITZIEI BURUZKO INKESTAK

SSB edo beste UDAL ZERBITZU bati INKESTA

Aintzakotzat hartzen dugu zuen iritzia ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatu ahal izateko Ikuskaritzak egituratu duen prozesuari buruz; jakin badakigu zoritxarrez familia batzuk ez direna arduratzen behar den bezala seme-alabak ikastetxera normalean joan daitezten Ekintza honek bigarren ikasturte honetan segidan jarri diren alderdietan sentitu duzuen poza zuek balioestea du helburu.

Ingura ezazue zirkulu batez honekin batera doan eskalan egin duzuen zeuen belioespenari dagokion zenbakia.

Erantzunak anonimoak dira, eta beraz ez duzue inolako datu identifikagarriak jarri behar.

Oro har, honako honek poztu nau:

	BATERE EZ	OSO
1. Eskola absentismo eta deseskolatzearen segimendu eta kontrolerako planak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
2. Segimendu eta kontrol horietan Udalak burutu duen jokabideak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
3. Beste Erakunde edo instantzia batzuen jokabideak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
Pozik egon ezik, zehaztu zergatik	_____	
4. Prozesua aurrera erodateko zure zerbitzuko arduradunen aldetik jasotako argibide mailak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
5. Jokabide horren ondorioz sortutako hobekuntzak.	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	

Erants ezazue, arren. beste edozein iradokizun, kritika, ohar,...

_____n, 2005 eko _____aren__(e)an

ZUZENDARITZA TALDEARI INKESTA

Aintzakotzat hartzen dugu zuen iritzia ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatu ahal izateko Ikuskaritzak egituratu duen prozesuari buruz; jakin badakigu zoritxarrez familia batzuk ez direna arduratzen behar den bezala seme-alabak ikastetxera normalean joan daitezzen. Ekintza honek bigarren ikasturte honetan segidan jarri diren alderdietan sentitu duzuen poza zuek balioestea du helburu.

Ingura ezazue zirkulu batez honekin batera doan eskalan egin duzuen zuen belioespenari dago-kion zenbakia.

Erantzunak anonimoak dira, eta beraz ez duzue inolako datu identifikagarriak jarri behar.

Oro har, honako honek poztu nau:

	BATERE EZ	OSO
1. Eskola absentismo eta deseskolatzearen segimendu eta kontrolerako planak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
2. Segimendu eta kontrol horietan ikastetxeak eraman duen jokabideak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
3. Beste Erakunde edo instantzia batzuen jokabideak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
Pozik egon ezik, zehaztu zergatik	_____	
4. Prozesua aurrera eroateko Ikuskaritzatik jasotako argibide mailak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
5. Jokabide horren ondorioz sortutako hobekuntzak.	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	

Erants ezazue, arren. beste edozein iradokizun, kritika, ohar,...

_____n, 2005 eko_____aren__(e)an

FORU ALDUNDIKO HAUR ZERBITZUARI INKESTA

Aintzakotzat hartzen dugu zuen iritzia ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatu ahal izateko Ikuskaritzak egituratu duen prozesuari buruz; jakin badakigu zoritxarrez familia batzuk ez direna arduratzen behar den bezala seme-alabak ikastetxera normalean joan daitezen Ekintza honek bigarren ikasturte honetan segidan jarri diren alderdian sentitu duzuen poza zuek balioestea du helburu.

Ingura ezazue zirkulu batez honekin batera doan eskalan egin duzuen zeuen belioespenari dagokion zenbakia.

Erantzunak anonimoak dira, eta beraz ez duzue inolako datu identifikagarriak jarri behar.

Oro har, honako honek poztu nau:

	BATERE EZ	OSO
1. Eskola absentismo eta deseskolatzearen segimendu eta kontrolerako planak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
2. Segimendu eta kontrol horietan Haur Zerbitzuak burutu duen jokabideak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
3. Beste Erakunde edo instantzia batzuen jokabideak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
Pozik egon ezik, zehaztu zergatik	_____	
4. Prozesua aurrera eroateko zure zerbitzuko arduradunen aldetik jasotako argibide mailak	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	
5. Jokabide horren ondorioz sortutako hobekuntzak.	0 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	

Erants ezazue, arren. beste edozein iradokizun, kritika, ohar,...:

n, 2005 eko _____ aren __ (e)an

II.ERANSKINA

DATUAK UDAL ETA HAURTZARO- KO ZERBITZUETAN (ALDUNDIA) JASOTZEA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
IKERKETA SAILA
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Delegación Territorial de Bizkaia

2004-05 IKASTURTEA

“HEZKUNTZA ESKUBIDEA BERMATZEKO PROGRAMA: BIZKAIAN DESESKOLARIZAZIOA ETA ESKOLAKO ABSENTISMOA ERROTIK MOZTEA” PROGRAMAREN JARRAIPENA

UDALA:

1.- Esku-hartze bateratua ahalbidetzeko, OGZetatik edo Udaleko beste Zerbitzu batzuetatik Eskoletara bidalitako txosten sozio-educatiboekin hasitako kasu kopurua.

Kop.:

2.- Esku-hartze bateratua ahalbidetzeko, Eskoletatik OGZetara edo Udaleko beste Zerbitzu batzuetara bidalitako kasu kopurua:

Kop.:

Kasu horietatik, zenbatak izan duten txosten sozio-educatiboa:

Kop.:

3.- Aurrekoetatik, OGZek edo Udaleko beste Zerbitzu batzuek esku hartu duten kasu kopurua:

Kop.:

4.- OGZen edo Udaleko beste Zerbitzu batzuen esku-hartzeari esker, arazoa konpondua edo bideratuta geratu den kasu kopurua:

Kop.:

5.- Fiskaltzan tramitatzeke, OGZek edo Udaleko beste Zerbitzu batzuek Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari bidalitako kasu kopurua.

Kop.:

- Identifikatu eskolaratze-zentroa:

.....
.....
.....
.....
.....
.....



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia
Gizarte
Ekintza Saila
Departamento
de Acción Social



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
IKERKETA SAILA
Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Delegación Territorial de Bizkaia

5.- Babes falta zegoela uste zutelako, OGZek edo Udaleko beste Zerbitzu batzuek Foru Aldundiari bidalitako kasu kopurua:

Kop.:

- Identifikatu eskolaratze-zentroa:

.....
.....
.....
.....

6.- Dagokion OGZ edo Udal Zerbitzua Eskolarekin harremanetan jarritako kasu kopurua, bidalitako txostenekin egin duena azaltzeko.

Kop.:

Azalpen hori eman zenean, ze prozedura erabili zen?

(*)

Bidalketako gutun edo ofizioa	
Ahozko komunikazioa	
Txosten sozio-edukatihoa beteta itzultzea	
Aldian aldiko bilerak Zentroetako arduradunekin	
Tokiko Mahaiak	
Beste batzuk (azaldu zeintzuk):	

(*) Markatu X batekin dagokion lekuan

7.- AZALPENAK (programaren funtzionamendua hobetzeko balio duten iradokizunak, ekarpenak, ideiak... jasoko dira)

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

2004-05 IKASTURTEA

“HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA BERMATZEA: DEESKOLATZEA ETA ESKOLA ABSEN-
TISMOA ERAUZTEA BIZKAIAN” PROGRAMAREN SEGIMENDUA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA:

1.- SSGeK edo beste Udal Zerbitzu batzuei esku har dezaten igorri dizkieten kasuen kopurua:

Kop.:

Kasu horietatik zenbat gizarte- eta hezkuntza- txosten batekin:

Kop.:

2.- Aurrekoetatik, zenbat kasutan hartu duten esku Haurtzaroko Zerbitzu Espezializatuek:

Kop.:

3.- Zenbat kasutan konpondu edo bideratu duen arazoa Zerbitzu Espezializatuen esku-hartzeak:

Kop:

4.- Zenbat kasutan hartu behar diren bestelako neurriak:

	Kop.
Babesa	
Tutoretza	
Fiskaltzari igortzea	
Besterik (zehaztu)	

- Eskolatuak dauden Ikastetxea jakinaraztea, eta baita adingabeen inizialak ere:

.....

.....

.....

.....

5.- Jakinarazi al dio Foru Aldundiko Zerbitzu espezializatuak SSBri edo dagokion Udal Zerbitzuari zer egin duen berari igorritako kasu bakoitzarekin?

BAI: EZ: (X jarri behar den lekuan)

Erantzuna baiezkoa izanez gero, zein prozedura erabili zen?

(*)

Gutuna edo igortzeko ofizioa	
Ahozko mezua	
Gizarte- eta hezkuntza- txosten osatua bihurtzea	
Aldian behingo bilerak SSBetako arduradunekin	
Tokian tokiko mahaiak	
Besterik (azaldu zeintzuk):	

(*) X jarri behar den lekuan

6.- OHARRAK (programa hobeto erabiltzeko balio izan dezaketen iradokizun, ekarpen, asmoak... jasoko dira)

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....